

# berriobeiti

Aitzoain // Añezkar // Artika // Ballariain // Berriobeiti // Berriogiti // Elkarre // Larrageta // Lotza // Oteitza

udalaren osoko bilkura <3-4> udal informazioa <4-7> kultura <7-9> hiritarren arreta <9> euskara <9-10> kirolak <10>



## Oinez, Lotzako aintziran barrena



## HERRI BAKOITZEKO BIZTANLE-KOPURUA (2011KO MARTXOAREN 1)



### UDAL ZERBITZUAK

#### UDALA

Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti.  
**Harrera ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara. 948 30 31 29. **Faxa:** 948 30 27 31. **Web:** www.berrioplano.es  
 ayuntamiento@berrioplano.es

#### ALBIENTEEN ZERBITZUA

Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti.  
 618 96 94 55

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**  
 Iturribidea, 1. Artika. **Tel:** 948 38 32 54 **Faxa:** 948 38 32 77.

**Posta elektronikoa:**  
 cultura@berrioplano.es

#### LIBURUTEGI PUBLIKOA

Maria de Maeztu Kultur etxean.  
 Iturribidea, 1. Artika. **Ordutegia:** 15:00etatik 21:00etara. **Tel:** 948 38 26 22. **Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es **Katalogoa kontsultatu:** www.navarra.es

#### UDAL IGERILEKUA

Nuestra Señora de la Purificación, z/g. Berriobeiti  
 948 30 38 52. Igerileku estalia eta udako igerilekua

#### ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA

Ntra. Sra. de la Purificación, 11. Berriobeiti. Jendearendako zabalik: 8:00etatik 22:00etara.

#### KONTSUMITZAILEAREN INFORMAZIOERAKO UDAL BULEGOA

Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti. 948 30 31 29 **Faxa:** 948 30 27 31 **Harrera ordutegia:** hilabeteko azken asteartean, 10:00etatik 13:00etara. Iritsi ahala egiten da harrera. Telefono bidezko harrera ere bai

#### BERRIOGOTIKO HAUR ESKOLA

Nuestra Señora de la Purificación, 13. Berriogoti. **Telefonoa:** 948 35 15 88

#### ARTIKAKO HAUR ESKOLA

Leonor Akitaniakoa, 8. Artika.  
**Telefonoa:** 948 21 56 31

### UDALA

#### UDAL BULEGOAK

Jendearendako harrera ordutegia:  
**9:00etatik 14:00etara**

#### UDAL TEKNIKARIAK

**Bisitak:** astelehen eta ostegunetan, 9:00etatik 14:00etara  
**Deiak:** astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan, 12:00etatik 15:00etara

#### IDAZKARITZA

**Bisitak:** astelehen, asteazken eta ostegunetan, 9:00etatik 14:00etara.  
**Tasak:** agiriak egitea eta izapidetzea.  
**Ziurtagiriak:** 0,70 €. **012-ren bidez eskatzen diren ziurtagiriak:** doan.  
**Txosten teknikoak ziurtagiriak:** 9,02 €. **Konpultsatzea:** 0,20 €.  
**Fotokopiak:** DIN A-3, 0,15 €. DIN A-4, 0,06 €

#### ESKUALDEKO HIRI GARRAIOA

901 50 25 03  
**22-B linea 22-Luzapena Berriogotira** (astelehenetik ostiralera)  
**Ibilbidea**  
 Yanguas y Miranda, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Gipuzkoako etorbidea Berriozarren, Gipuzkoako etorbidea Aitzoainen, Plazaola industrialdea, Santa Ageda Aitzoainen, Andrelopa Aitzoainen eta Berriogoti.  
**Maiztasuna**  
 60 minuturo.  
**16. Linea- Luzapena Berriogotira (asteburuetan)**  
**Maiztasuna**  
 20-24 minutu.  
**Ibilbidea**  
 Beriain, Noain, Talluntxe industrialdea, Cordovilla, Zaragozako etorbidea, Yanguas y Miranda, Sarasate

pasealekua, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Gipuzkoako etorbidea (Berriozar), Gipuzkoako etorbidea (Aitzoain), Plazaola industrialdea, Santa Ageda Aitzoainen, Andrelopa (Berriobeiti) eta Berriogoti.

#### 14. Linea-Luzapena Artikara (eguneko zerbitzua)

**Maiztasuna:** Lan egunetan, 55 minuturo. Larunbatetan, 60 minuturo. Igande eta jaiegunetan, 60 minuturo  
**Ibilbidea:** Iruñeko Udala, Arrotxapea eta luzapena Artikara (Alde Zaharra)  
**N4 Linea (gaueko zerbitzua)**  
**Maiztasuna:** Aitzoaingo mugaraino: 60 minuturo. Berriogotiraino: hainbat bidaia (zehazteke)  
**Ibilbidea:** Iruñea (Sarasate pasealekua), Berriogoti. Berriobeitiko udaletxean, geltokiak kuartelaren aurrean, Ultzamako errepidearen bidegurutzean, Aitzoainen, Berriobeitin eta Berriogotin.

#### 17. Linea

**Maiztasuna:** Lan egunetan: 20 minuturo. Larunbata eta jaiegunetan: 40 minuturo.  
**Ibilbidea:** Mutiloabeiti (lau geltoki), Mutiloagoiti (4 geltoki), Sadar, Agoitz, Paulino Caballero, Nafarroa Behereko etorbidea, Vianako Printzearen plaza, Yanguas y Miranda, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Sáenz de Oiza, Santa Engrazia, María Viscarret eta Artika Berri.

### TAXIAK

**Teletaxi** (948 351335)

### ANTSOAINEKIN MANKOMUNATUAK DAUDEN ZERBITZUAK

#### OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Udaletxeko plaza, 1. Antsoain.  
 948 132207

#### EZKABA ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA

Mendikale, 1. Antsoain 948 14 82 48

### BERRIOZARREKIN MANKOMUNATUAK DAUDEN ZERBITZUAK

#### OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Berriozarko etorbidea, 10. Berriozar  
 948 30 00 07. **Ordutegia:** 9:00etatik 13:00etara, aurrez hitzordua eskatuta

#### OSASUN ETXEA

Kaleberri, z/g  
**Telefonoa:** 948 30 94 66  
**Aldez aurreko hitzordua:** 948 30 94 04

#### FAMILIA PLANIFIKAZIOARRAKO ZENTROA

948 30 19 07

#### MENDIALDEA ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Berriozarko etorbidea, z/g 948 309469

#### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Berriozarko etorbidea, z/g 948 30 94 05

### "FRANCISCO CASANOVA" MUSIKA ESKOLA

Oianondoa, 1. Berriozar  
 948 30 04 30 / 948 30 18 00

### BAKE-EPAITEGIA ETA ERREGISTRO ZIBILA

Rekalde, 8. Berriozar  
 948 30 08 79 **Harrera ordutegia:** 9:00etatik 13:00etara

### KONTZEJUAK

#### KONTZEU ADMINISTRAZAILAIA:

José Vidal. **Harrera ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara (948 303129)

#### AITZOAIN:

Oronsuspe auzoa, 3.  
**Kontzejuburua:** Teresa Sanz Arroyo

#### AÑEZKAR:

San Andres k/ 6  
**Kontzejuburua:** Joaquín Lumbier Irisarri

**ARTIKA:** San Martzial, 9 (948 38 37 93) **Kontzejuburua:** Alberto Pérez Gil. Administrazioaile: Imanol García

#### BALLARIAIN:

San Pedro k/ z/g  
**Kontzejuburua:** José Antonio Gómez Chandiá

#### BERRIOGOTI:

Santa Eulalia k/ 47  
**Kontzejuburua:** Francisco Esquiroz Subiza

#### BERRIOBEITI:

Kale Nagusia, 2  
**Kontzejuburua:** Francisco Javier Díaz Rodríguez

#### ELKARTE:

Purificación k/, 16  
**Kontzejuburua:** José Ángel Huarte

#### LARRAGETA:

San Esteban k/ z/g  
**Kontzejuburua:** Amelia Peñalver Hermida

#### LOTZA:

San Joan k/ z/g  
**Kontzejuburua:** José Ángel Nuin

#### OTEITZA:

San Joan k/ 6  
**Kontzejuburua:** María Macías Rodríguez

### PILOTALEKUA: TASAK

#### BERRIOBEITI

Gomazko pala, Iarruzko pala, frontenis, futbito eta saskibaloia (948 30 32 00) **Erroldatuak, kontzejuan jaiotakoak eta auzokideekin ezkondukoak:** 10 euro/orduko **Errondatu gabek:** 16 euro/orduko **Argia:** 5 euro/orduko. **Ordutegia:** astelehenetik ostiralera: 17:00etatik 22:00etara. Larunbatetan: 09:00etatik 12:00etara. Larunbat arratsaldeetan, igande eta jaiegunetan: soil-soilik auzokideendako

#### ARTIKA

Gomazko paleta eta pilotalekua (630 23 86 85) **Alokairuak:** **Auzokide erroldatuek:** 4 euro; **hiru auzokide erroldatuek eta erroldatu gabeko batek:** 5 euro; **bi erroldatuek, eta erroldatu gabeko bik:** 7 euro; **auzokide erroldatu batek, eta erroldatu gabeko hiruk:** 10 euro; **erroldatu gabek:** 15 euro. **Argi-fitxak:** 4 euro/ordua. **Dutxa, aukerazkoa:** 4 euro. **Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 22:00etara. Larunbatetan: 9:00etatik 21:00etara. Igandetan: itxita.



Berribeitiko herrietako auzokideek badute antzina argazkiak bidaltzeko aukera, atal honetan argitaratzeko; horretarako, Kultura Zerbitzuarekin jarri behar dute harremanetan. Behin argitara emanda, argazkiak auzokideei itzuliko zaizkie.

**ATZERA BEGIRAKOAK. BERRIOBEITIKO FESTAK (1950).** Irudian, ezkerretik eskuinera Pablo Ilundáin, Carmelo Larumbe, José Goñi eta Silvestre Yoldi, laurak Berribeitiko gazteak, blusoi handiz jantzita, batek gitarra eskuetan duela, 1950eko Sanisidrotan.

**LOTZAKO AINTZIRAKO ESPEZIEAK, ALEZ ALE. ZIKOINA.** Zikoina zuria hiri-hegaztia da, oso ezaguna, baina ez da maiz ageri Iruñerrian, ezta Berriobeiti aldean ere. Nafarroako hegoaldean, ordea, ohikoa da. Esate baterako, 2010ean, 85 bikote zenbatu zituzten, Corellan.

Azken urteotan, espeziaren migrazio-portaera aldatu egin da, eta Lotzan, adibidez, gero eta zikoina gehiago ageri dira urtarrilean, bai eta abenduan ere. Ale gehieneko hilabeteak otsaila, martxoa eta apirila izaten dira; izan ere, behin maiatzera iritsita, hegazti gehienek jadanik gure bazterrak zeharkatu dituzte eta habia egiteko eremuetara iritsi dira, denak iparraldean kokatutakoak, han ugalketa egiteko. Zikoina zuria berriz ere abuztuan eta irailean agertzen da; batez ere, uda oso lehorra ez bada eta aintzira bere osoan idortzen ez denean.

Gehienetan, ale gutxi ibiltzen da aintziran, 10 baino gutxiago, baina aurtengoan, hainbat aldiz, zenbait dozena ibili dira eta, hara, otsailaren 21ean, 94 zenbatu ziren; sekulan baino gehiago, beraz. Lotzan dauden bitartean, zikoinak indarberritu eta ederki elikatzen dira; zehazki, zizareak, sagutxoak, igelak eta denetariko ornogabeak jaten dituzte, migrazio-hegaldiari berrekin aurretik.

Eta, zikoina, batez ere hegazti fidakorra eta ikusgarria da, aintzirako belardiak kolorez ederki jantzen dituena; hegala zuri-beltzak baitira; eta, mokoak eta hankak, gorriak.

Testua: Gorosti Natur Zientzi Elkarte. Argazkia: Gonzalo Déan. Aintzirari buruzko argibideak eskuratzeko, jo ezazue zaleek eta aintzirako lagunek sortutako blogera:

<http://balsadeloza.blogspot.com/>



**HERRITARRENTZAKO TELEFONOA**

Herritarrentzako Telefonoaren Harrera zerbitzuaren bidez, badago gestio hauek egiteko aukera:

- > Ziurtagiriak eskatu (katastroa eta udal erroldak, bizitokia, bizikidetzak, ordainagiriaren kopia, etab).
- > Udal argibidea ematen du: zerbitzuak, kultur eta kirol agenda, espedienteak izapidetzea, ordenantzak, zergak, ikastaro eta beka eskaintzak, enplegu delaldia eta lehiaketa publikoak.
- > Udalekoak ez diren izapideei buruzko argibidea: oinarrizko hornidurez (telefonoa, gasa, elektrizitatea eta ura) arduratzen diren enpresak, Nafarroako Gobernu, osasun etxeak eta zerbitzuak, heziketa zerbitzuak, garraio zerbitzuak, aisia eta elkarreak.
- > 012 telefonoaren bidez ere zerbitzuei

- buruzko kexak aurkeztu daitezke, iradokizunak egin eta udalarekin zerikusia duten gaiei buruzko abisua eman.
- Nola sartu:** Markatu 012 telefonoa. Udalerrietik kanpo deitzen baduzu, telefonoa hauxe da: 948 217012
- Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 19:00etara, eta larunbatetan, 9:30etik 13:30era. Udan ordutegi berbera izanen da.
- Deiaren kosta:** finkotik: 0,34 euro. Sakelakotik, 0,36 euro, Telefonocaren tarifaren arabera eta denbora-mugarik gabe. Kontsultatu beste operadore batzuk.

**>osoko bilkura Laburpena**

**OSOKO BILKURA ARRUNTA**  
2010eko azaroaren 30a

**ADMINISTRATIO ELEKTRONIKOAREN EGOITZA ARAUTZEKO ORDENANTZA**  
Evelio Gilek (UPN) izan ezik, gainerako zinegotzi guztiek parte hartu zuten osoko bilkuran, Udaltzarak aho batez erabaki zuen hasierako onespina ematea Berriobeitiko Udalaren administratio elektronikoa arautzen duen ordenantzari.

**LURRALDE KONTRIBUZIOKO TASAK, 2011.**  
Udaltzarak erabakita, hiri-kontribuzio tasa berriak finkatu dira 2011rako (% 0,15), 2012rako (% 0,157), 2013rako (% 0,164), 2014rako (% 0,171) eta landalurren kontribuziorako (% 0,80). Bederatzi boto izan ziren alde (AAB, CIB, NaBai, UPN eta CP-HK) eta abstentzio bat (AVAB).

**SANEAMENDU PLANA**  
Udaltzarak saneamendu plana onetsi zuen, sei zinegotzik alde bozkatuta (AAB, CIB eta UPN); bik, kontra (NaBai), eta bi abstentziorekin (CP-HK eta AVAB). Akordioaren arabera, Udalak Kontzejuentzako 90.000 euroko ekarpena ezabatu eta 10.000 euroko premiazko kontusail bat utziko du; berdeguneak mantentzeko zerbitzuaren kosta murrizten saiatuko dira, aurten kontratua berritzeko baita; udalak industrialdeetako argiztapen publikoaren kosta bakarrik ordainduko du (168.741,18 euro); ur gutxiago kontsumituko da berdeguneak ureztatzeko; diru gutxiago erabiliko da herrietako karrikak mantentzeko; 3.294,75 euro bideratuko dira industrialdeetako kaleak konpontzera; kultur ekitaldi gutxiago antolatuko dira; euskarazko ekitaldiak murriztuko dira; Kirol Egunaren kosta murriztuko da; eutsi eginen zaio Berriozarko Musika Eskolako defizita estaltzeko kontusailari; gastu arruntaren aurrekontuaren gaineko % 0,8 eta % 0,2 kalkulatzeko proposatzen da, GKEentzako ekarpenerako; eta Interneteko kanalak berrikusiko dira, bai eta telefono-deien kontsumoa ere.

**SAHARRAREN MOZIOAK**  
Udaltzarak aho batez onetsi egin zituen, batetik, Nafarroako Parlamentuko adierazpen instituzionala, eta, bestetik, Sahararrek Nafarroan

duten Ordezkaritzak eta ATTSF, ANAS eta ANARASD GKEek elkarrekin aurkeztutako mozioak, Elgarhi Nayem saharar haurraren erailketa gaitzesteko, bai eta Aaiungo gertakariak salatzeke; halaber, Giza Eskubideak eta NBEK Mendebaleko Saharako erreferendumaz emandako ebazpenak betetzeko eskatu da.

### OSOKO BILKURA BEREZIA 2010ko abenduaren 21a

#### ARTIKAKO KIROL HIRIRAKO MAILEGUAK ESLEITU DIRA.

Zinegotzi guztiak bertan zeudela, Udalbatzak onetsita, kopuru bereko (2.500.000 euro) bi mailegu kontratatu dira; bata, Nafarroako Rural Kutxarekin eta, bestea, Nafarroako Kutxarekin. Zazpi boto izan ziren alde (AAB, CIB, UPN) eta hiru abstentzio (NaBai eta AVAB).

### OSOKO BILKURA ARRUNTA 2011ko urtarrilaren 4a

#### AABKO JUAN JOSÉ ALONSO GOROSTIETA ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA.

Zinegotzi guztiak parte hartu zuten osoko bilkura batean, AAB taldeko Juan José Gorostieta zinegotzi berria bere karguaz jabetu zen.

#### MUSIKA ESKOLAREKIKO HITZARMENA.

Udalak Berriozarko Musika Eskolarekiko hitzarmen berria onetsi zuen; sei boto izan ziren alde (AAB, NaBai eta CP-HK); lau, kontra (UPN eta CIB), eta abstentzio bat (AVAB).

#### 2010EKO KULTUR TALDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA.

Osoko bilkurak aho batez erabakita, eskatutako kopuruaren % 50eko diru-laguntza emanen zaio kultur talde eskatzaile bakoitzari.

### OSOKO BILKURA BEREZIA 2011ko urtarrilaren 25a

#### ADMINISTRAZIO BALDINTZEN PLEGUA, ARTIKAKO KIROL HIRIAREN KUDEAKETA ESLEITZEKO.

Udaleko zinegotzi guztiak parte hartu zuten osoko bilkura batean, Udalbatzak administrazio baldintzen plegua onetsi du Artikako kirol instalazioen zeharkako kudeaketa errendamenduz esleitzeko; urteko, 90.000 euroko kanon bat gehi BEZa dago barne,

eta, horren bidez, Udalak desgrabatu egingen du obran jasandako BEZa.

#### BERRIOZARKO MENDEBALDEA IKASTETXEKO ATEZAINAREN KOSTEA HANDITZEA.

Udalak onetsi egin du Berriozarko Mendebaldea ikastetxeke atezain berriaren kostea ordaintzen laguntzea, eta 14.000 euro emanen ditu (Berriobeitiko ikasleek ikastetxean zer proportzio egiten duten, horren arabera zehaztu da ordaindu beharreko kopurua). Sei boto izan ziren alde (AAB, NaBai eta CP-HK); lau, kontra (CIB eta UPN); eta, abstentzio bat (AVAB).

### OSOKO BILKURA ARRUNTA 2011ko otsailaren 1a

#### ZENDEAREN EGUNA.

Zinegotzi guztiak osoko bilkuran zeudela, Udalbatzak aho batez onetsi zuen Zendearen Eguna aurten Elkarten egitea.

#### KULTUR, KIROL ETA GIZARTE XEDEETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA.

Osoko bilkurak diru-laguntzen deialdia onetsi du aho batez, kultur, heziketa, kirol, laguntza eta gizarte xedeetarako, bai eta gazte-jarduerentzako ere.

#### KONTZEJUEK 2010EKO OBRETARAKO ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK.

Udalbatzak Kontzejuentzako diru-laguntzak onetsi ditu aho batez, 2010ean egindako obregatik.

### OSOKO BILKURA BEREZIA 2011ko otsailaren 22a

#### BERTAN BEHERA UTZI DA ARTIKAKO KIROL HIRIAREN ZEHARKAKO KUDEAKETA EGITEKO ADMINISTRAZIO PLEGUEN ONESPENA.

Zinegotzi guztiak parte hartu zuten osoko bilkura batean, Udalbatzak bertan behera utzi zuen Artikako Kirol Hiriaren zeharkako kudeaketa esleitzeko administrazio baldintzen plegua onesteko erabakia; zazpi boto izan ziren alde (NaBai, CIB, UPN eta AVAB) eta lau abstentzio (AAB eta CP-HK).

#### ADMINISTRAZIO PLEGU BERRIA, ONETSIRIK.

Osoko bilkurak administrazio baldintzen plegu berria onetsi zuen: zazpi boto izan ziren alde (NaBai, CIB, UPN eta AVAB) eta, lau, kontra (AAB eta CP-HK). Hainbat aldaketa egin dira.

## Hirilurren eta landalurren kontribuzioa igo da

Udalak % 015en finkatu du hiri-izaerako ondasun higiezin lurralde kontribuzioaren urteko karga; neurriak 2011ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra. Landa-izaerako ondasun higieziinei dagokienez, portzentajea % 0,80n finkatu da. Bestaldetik, ezarri da zer igoera aplikatuko den hirilurren kontribuzio tasan, datozen urteotan. Hona hemen: 2012rako (% 0,157), 2013rako (% 0,164), eta 2014rako (% 0,171).

## AAB taldeko zinegotzi berria karguaz jabetu da

Juan José Alonso Gorostieta zinegotzi berriak kargua bere gain hartu zuen, joan den urtarrilaren 4an egindako osoko bilkuran. ABB taldekoa da, hau da, Agrupación Ayuntamiento de Berrioplano izeneko taldekoa, eta Juncal Galarren ordeztatu da. Gorostieta karguaz jabetu zen, apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuak ezarritako baldintzekin bat.



#### >DOTAZIOAK

#### Marisol Hoyosek kudeatuko du Erabilera Anitzeko Eraikineko taberna-jatetxea

Udalak esleitu egin du Berriobeitiko Erabilera Anitzeko Eraikinaren ustiapena sei urterako. Hartzailea Marisol Hoyos Aristizábal izan da. Udalaren iritziz, Hoyosen eskaintza izan zen hoberena; hots, 4.000 euro gehi BEZa.

# 59 ikastoki eskaini dira 0 eta 3 urte arteko haurrentzako



**M**artxoaren 15ean bukatu da Berriogoitiko eta Artikako haur eskoletan izena emateko epea. Guztira, 59 ikastoki eskaini dira. Zehazki, Berriogoitin, 8 toki bularreko haurrentzako izan dira; 20, bat eta bi urte arteko haurrentzako; eta 5, berriz, bi eta hiru urte artekoentzako; guztiak ere, gaztelaniazkoak. Artikako eskolako hizkuntza euskara da, eta zortzi toki izan dira bularreko umeentzako; 2, bat eta bi urte arteko haurrentzako, eta 16 toki, bi eta hiru urte artekoentzako.

## ITZA ZENDEAKO HAUR ESKOLA

Itza Zendeako haur eskolak ere haurrentzako ikastokiak eskaintzen ditu, izena emateko epe berarekin, bi udalen arteko akordio bati esker.

## Kontzejuak

### >2010EKO EGUBERRIAK

#### Olentzero, Larragetan eta Berriobeitin; Errege Magoak, Berriobeitin

2010eko Eguberrietan ez zuten huts egin haurrek gehien maite dituzten pertsonaiek. Horrela, Olentzero Larragetan, Berriogoitin eta Artikan ibili zen; eta haren neskalaguna, bere aldetik, Artikan eta Añezkarren: haurrek idatzitako gutunak jaso zituen. Berriobeitira, bestalde, Ekialdeko Errege Magoak iritsi ziren beren karroza ikusgarrian eta etxe guztietan opariak utzi zituzten.



### >ARTIKA ETA BERRIOGOITI

#### Inauteriak beti bezain koloretsuak, Artikan eta Berriogoitin

Artikako auzokideek gogotik ospatu zituzten inauteriak joan den martxoaren 4an. 20:00etan, Berriozarko inauterietako konpartsa herritik atera eta Artikara joan zen. Artikako herri zaharrean ohiko kalejira egin ondoren, jendea pilotalekura joan zen; han, otamena zerbitzatu zen eta dantzariak aritu ziren. Berriogoitin, bestalde, hurrengo asteburuan egin zituzten inauteriak. Apezetxea elkarteak, izan ere, mozorro-afaria antolatu zuen martxoaren 12an eta, aurreko urteetan bezala, mozorro-jantziak ikusgarriak izan ziren.

### >AÑEZKAR

#### Kirolari buruzko solasaldia Kontzejuaren Etxean

Ekitaldia joan den otsailaren 10ean egin zen, Añezkarko Kontzejuak, Berriobeitiko Udalarekin elkarlanean, antolaturik. Gai hau izan zen solasgai: "Kirola Nafarroan". Nafarroako hainbat kirolari ospetsu aritu ziren; zehazki, Juanjo Oroz, Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindularia; Maite Ruiz de Larramendi, gomazko pilotako mundu txapeladuna eta munduko azken txapelketako pilotari onena (Paue-2010); eta, Roberto Martil, Triman Navarra Xota taldeko jokalaria. Añezkarren bizi den iruindar kazetari batek aurkeztu zuen solasaldia; Ainhoa Alonsok, alegia.



### >ZENDEAREN EGUNA

## Zendearen Eguna Elkarten eginen da

Berriobeiti Zendea osatzen duten hamar herriak Elkarten elkartuko dira, egun seinatu hori ospatzeko. Oraindik eguna zehaztu ez bada ere, irailaren bukaeran eginen da. Urtero bezala, ekitaldi nagusia herri bazkaria izanen da, bai eta bazkalondo girotua ere, 400 lagun inguru elkartzten baitira. Laster aditzera emanen dituzte bai egitaraua bai data.



AITZOINGO ETA BERRIOBEITIKO JAIAK

## Azken urteotako jairik jendetsuenetakoa

**A**urtengo Santa Ageda jaietan sekulan baino jende gehiago bildu da. Izan ere, eguraldi onak lagundurik, auzokide aunitzek gustura parte hartu zuten ekitaldi guztietan. Aurtan, lehen aldiz, jai-zapiak egin dituzte; zapi koadroduna, Aitzoingo armarrria josia duela.

Egitaraua ostiralean hasi zen. Elkarreko afaria arrakastatsua gertatu zen eta "Supongo" batukada taldea parilladan ere aritu zen jotzen, afaltiar guztien pozerako. Otsailaren 5ean, larunbatean, 4X4 trial bat egin zen, eta jende askok parte hartu zuen; eta, gero, 112 heldu eta 34 haur jaietako herri bazkarian bildu ziren. Bazkaldoan, Modesto orkestragizonak festa giro ederra sortu zuen. Gauez, afarian ohi baino jende gehiago elkartu zen, giro ederrean elkartu ere, bakoitzak etxetik jatekoa eramanda. Afalondoren, "Las Magras" taldea aritu zen, bai herrikoentzako bai beste herri batzuetatik iritsitakoentzako.

Hala ere, ekitaldi guztien artean bat bereizi behar izatera, igandeko kalderetea izan zen. Izan ere, ustez 80 lagun biltzekoak ziren, baina, azkenean, 140 agertu ziren, kalderetearen usainak erakarrita.

Arratsaldean, Zaragozako "Cirteani" antzerki taldeak haurrentzako antzezlan bat eman zuen, eta, txokolate-janaren ondotik, jaien bukaera iritsi zen.

### >MAIATZA

#### Berriobeitiko eta Reusko abesbatzen kontzertua, San Isidro jaietan

Berriobeitiko Sanisidroak handizki ospatuko ditu. Horrela, Reusko Voces de la Tierra abesbatza herrira etorriko baita, maiatzaren 14an Berriobeitiko elizan eginen den kontzertuan aritzeko. Kontzertua 19:30ean hasiko da. Ametza abesbatzarekin batera arituko da, hemengo kantu taldea hara joan baitzen duela zenbait hilabete. Haste-ko, abesbatza bakoitzak kantu batzuk emanen ditu bere aldetik; eta, gero, pare bat elkarrekin abestuko dituzte: bata, euskaraz, eta, bestea, katalanez.



>LOTZA

**60 bat lagun Lotzako aintziran bildu ziren, joan den otsailaren 12an**

Hezeguneen Eguna zela eta (otsailaren 2a), Berriobeitiko Udalak bisita gidatu bat antolatu zuen joan den otsailaren 12an, larunbatean, Lotzako aintzira ikusteko, betiere Gorosti elkartearekin eta Lotzako Kontzejuarekin elkarlanean. 60tik gora lagun elkartu ziren, eguraldi onak lagundurik. Esan behar da, urtetik urtera, gero eta jende gehiago biltzen dela, giro ona sortzen baita.

Aintziran sartu aurretik, bertaratutakoei azalpen txiki bat eman zitzaien Kontzejuaren etxean, han hainbat panel ezarrita baitzeuden hezegunearen ezaugarrien berri emateko. Ondotik, herritik bertatik lehen behaketa egin zuten, prismatikoz, teleskopioz eta argazki-makinez ederki honrituta, eta, gero aintziraren eremuan barneratu ziren. Egia esan, egun hartan ez zen bereziki hegazti aunitz ibili, baina hainbat espezie ikusteko aukera izan zuten: beltzarga batzuk, lertxun hauskara bat, zingira-mirotz bat, hegaberak, kopetazuri bat, hainbat basahate, arabazozo pikartak saldoan, buztanikara zuriak, bi miru gorri eta hainbat txantxangorri, besteak beste.



ABESBATZA TOPAKETA, MARTXOAREN 18TIK 20RA

**“A capella” estatuko lehiaketaren bigarren edizioa**

**K**ontzertu guztiak Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxean egingen dira, martxoaren 18tik 20ra. Berriobeitiko Udalak eta Nafarroako Abesbatzen Elkarteak antolatutako, aurtengoan bost talde arituko dira II “A capella” estatuko abesbatza lehiaketan. Hauek, zehazki: Ainur Ganbera Abesbatza (Kanariak), José de Felipe Ahots Zuriaren Abesbatza (Madril), Ars Poliphonica (Kantabria), Vocalia Taldea (Euskadi) eta La Lagunako Unibertsitateko Abesbatza Polifonikoa (Kanariak).

Erresuma Batuko Voces 8 taldeak emanen dio hasiera egitarauari; hasierako kontzertua, zehazki, martxoaren 18an izanen da, 20:00etatik aurrera. Bihar-munean, lehiaketa saioak hasiko dira; lehenak, eguerdiko hamabietan, eta, hurrengoak, arratsaldeko seietan.

Sari banaketa eta azken kontzertua martxoaren 20an, igandean, egingen dira, 12:00etatik aurrera.

EMAKUMEA

**Emakumeak eta botereari buruzko hitzaldia Kultur Etxean**

**E**makume Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta, joan den martxoaren 11n, ostiralean, hitzaldi bat egin zen Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxean, gai honen inguruan: “Emakumeak eta boterea. Emakumeen boterea”. Hizlaria Mauge Cañada izan zen, IPES-Gizarte Ikerketarako Talde Eragileko psikologoa.

**TRATU TXARREI BURUZKO SOLASALDIA**

Bestaldetik, joan den otsailaren 18an, Aprodemm elkarteak, Sagrario Mateok, tratu txarrei buruz hitz egin zuen, bai eta Zuzenbide Zibileko alderdi batzuei buruz ere, banantze eta dibortzioei dagokienez. Elkarte hori tratu txarrak hartu dituzten emakumeen eskubideen alde ari da.



>MUSIKA  
Jazzaren soinua Artikan

Jendea gustura egon zen The New Jazz Voices Ensemble taldearen jazz soinua entzuten, joan den otsailaren 26an. Mikel Gaztelurrutia piano-jole eta konpositorea da talde horren sortzaile eta gidaria. Eibarren jaio eta, orain, Nafarroan bizi da. Taldearen aurkezpen diskoan, poparen, soularen, musika latinoaren eta soinu-banden gai klasikoak bere maneran jotzen dituzte, baina Gaztelurrutiaren beraren konposaketak ere bai. Bertsioen artean, jazz munduko Duke Ellington eta George Gerswin musikari ospetsuen doinu ahaztezinak, baina Sting, Stevie Wonder eta Aita Donostiaren doinuak ere bai.

Zazpi lagun dira: batetik, hirukote instrumentala, hots, Mikel Gaztelurrutia, Javi Callen (kontrabaxua) eta Vincent Thomas (bateria eta perkusioa), eta, bestetik, ahots laukote bat: Jaione Medina sopranoa, Nerea Erbiti mezzosopranoa, Natxo de Esteban tenorea eta Riccardo Lombardo baritonoa.

Bartzelonako Taller de Musics eskolan hezia, egun Nafarroako Goi mailako Musika Kontserbatorioko irakaslea da, eta orain, ezohiko erronkari heldu dio, ahotsean oinarritzen den jazzaren alderdia ezagutzera emateko.



>UDAL LIBURUTEGIA  
Ipuin-kontalariak,  
martxoan  
eta apirilean

Datozen hilabeteotan, haurrek berriz ere ipuinak entzuteko parada izanen dute, Artikako udal liburutegian. Izan ere, guztira, lau ipuin-saio antolatuta dira: gaztelaniazko biak martxoaren 16an eta apirilaren 6an egingen dira; eta, euskarazko biak, berriz, martxoaren 30ean eta apirilaren 13an. Ipuin-kontalari guztiak asteazkenean arituko dira, arratsaldeko seietatik aurrera, liburutegiaren haur eremuan.



Helduentzako  
irakurketa kluba

Helduek ere aukera izanen dute udal liburutegiak martxorako antolatutako irakurketa klubean parte hartzeko. Liburu hau izanen da aztergai: "El río de la desolación. Un viaje por el Amazonas", Javier Reverte kazetari eta idazleak idatzitakoa. Hitzordua, martxoaren 15ean, asteartean, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

AGENDA

**MARTXOA.** Iñaki Vergararen **ARGAZKI ERAKUSKETA** "Emakume begiradak" (8. eta 9. orrialdeetan). **MARTXOAK 16. GAZTELANIAZKO IPUIN-KONTALARIA.** Artikako Liburutegia. 18:00. **MARTXOAREN 18TIK 20RA.** "A capella" **ESTATUKO LEHIAKETAREN BIGARREN EDIZIOA.** Berriobeiti. **MARTXOAK 27. HAUR ANTZERKIA** "Anbotoko Mari eta orrazi galdua". Glu Glu taldearen eskutik. Artikako Kultur Etxea. 18:00. **MARTXOAK 30. EUSKARAZKO IPUIN-KONTALARIA.** Artikako Liburutegia. 18:00. **APIRILAK 5. IÑAKI EIZMENDIREN HITZALDIA** "Ez dakigu euskaraz... nola lagunduko diegu gure seme-alabei?" Artikako Kultur Etxea. 18:00. **APIRILAK 9. DANTZA IKUSKIZUNA** "Where is my mind?" Fuera del Eje konpainiaren eskutik. Artikako Kultur Etxea. 20:00. **APIRILAREN 4TIK 20RA. JOSÉ MIGUEL ASCUNCEREN OLIO-PINTURA ERAKUSKETA** (8. eta 9. orrialdeetan). **APIRILAK 6. GAZTELANIAZKO IPUIN-KONTALARIA.** Artikako Liburutegia. 18:00. **APIRILAK 8. KORRIKA.** Berriobeiti. 18:30. **APIRILAK 13. EUSKARAZKO IPUIN-KONTALARIA.** Artikako Liburutegia. 18:00. **APIRILAK 16. ZENDEALDIA.** Artikako Kultur Etxea. 9:30. **APIRILAK 17. HAUR ANTZERKIA** "Misión imposible. El ratoncito Pérez contra la bruja Caries" Artikako Kultur Etxea. 18:00. **MAIATZAREN 3TIK 27RA.** Maite Canoren **OLIO ERAKUSKETA** "Colectivo H2O. El agua como elemento vital de todo y de todos". (8. eta 9. orrialdeetan). **MAIATZAREN 14TIK 15ERA. BERRIOBEITIKO SAN ISIDRO JAIK.** **MAIATZAK 29. KIROLAREN EGUNA.** Berriobeiti. **EKAINAK 11. EUSKARAREN JAI.** Larrageta.

>ERAKUSKETAK  
Iñaki Vergara, emakumearen omenez

Artikako María de Maeztu Kultur Etxean Iñaki Vergararen argazki erakusketa bat egonen da ikusgai martxoaren 31ra arte. "Emakume begiradak" du izenburu, eta 50 irudi dira, bakoitza testu batez hornitua dagoela. Munduko hainbat tokitako emakumeen eguneroko bizitza ageri da, batzuk Beningoak (Afrika) eta Ekuadorkoak, eta, besteak sahararren kanpamentuetan bizi direnak.

Kultur Arloak antolatutako erakusketa da, eta 16:00etatik 21:00etara egonen da zabalik, astelehentik ostiralera: larunbat eta jaiegunetan, berriz, Kultur Etxean ikuskizunak dauden orduetan.



## >Hiritarren arreta

### >MUSIKA ESKOLA

#### Hitzarmen berria Berriozarko Musika Eskolarekin

Udalak hitzarmen berria sinatu du Berriozarko Udalarekin, Francisco Casanova Musika Eskolaren kudeaketa partekatzeko eta Berriobeitiko biztanleei Berriozarko auzokideek dituzten baldintza berberak eskaintzeko, bai ekonomikoak bai izena ematerakoan. Bi udalen artean sinatutako hitzarmenaren arabera, Berriobeitiko Udalak 104.784,89 euro emanen dizkio Berriozarkoari, 2010eko defizitari aurre egiteko. Hurrengo urteetan, Eskolako urteko defizita estaltzeko, bi udalek dirua jarriko dute, bakoitzak eskolan duen ikasle kopuruaren arabera. Horrela, irakasle gastuei dagokien kopurua estaliko da, udalerrri bakoitzeko ikasleen portzentajearen arabera; gastu orokorren defizitari dagokionez, aldiz, Berriobeitik ordaindu beharko du irakasle gastuen atalean kalkulatu den portzentajea gehi hamar puntu. Hitzarmenak lau urterako indarra izanen du eta urtero baldintza beretan luzatuko da, inork besterik erabakitzen ez badu; halakotan, hilabete lehenago jakinarazi beharko da.

### >HIRI KANPAMENTUAK

#### Martxoaren 28an eta 29an, Aste Santuko kanpamentuetan izena emateko epea

Lau urtetik hamabira bitarteko 60 haurrek hitzordu bat izanen dute apirilaren 26tik 29ra, Aste Santuko hiri kanpamentuetan. Udalak, batetik, gaztelaniazko bi talde eskainiko ditu (bata, 4 eta 6 urte arteko 24 haurrentzako, eta, bestea, 7 eta 12 urte arteko 12rentzako). Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikinean egingen dira. Euskarazko bi taldeak, berriz, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean bilduko dira; hau da, 4 eta 6 urte arteko 12 haurrentzako, eta 7 eta 12 urte arteko 12rentzako.

Izena 012-Infolokal telefonoaren bidez eman behar da, martxoaren 28an eta 29an, eta tokiak zozketaz banatuko dira. Beraz, horrek esan nahi du ez dela deihurrenkera kontuan hartuko. 012 Infolokal zerbitzua harremanetan jarriko da tokia lortu dutenekin, huraxe baieztatzeko. Bi eguneko epea izanen da zenbatekoa ordaintzeko: hots, martxoaren 31 eta apirilaren 1a. Ez da bajarik onartuko apirilaren 6tik aurrera.

Beste alde batetik, udan hiri kanpamentuak ere egingen dira. Aurre-inskripzioa maiatzaren 10ean eta 11an egin beharko da, 012 Infolokal zerbitzuaren bidez.

### >ERAKUSKETAK

#### Apirilean eta maiatzean, margolan erakusketak

Iñaki Vergararen erakusketaren ondotik, bi margolan erakusketak jarriko dira ikusgai, apirilean eta maiatzean. Batetik, apirilaren 4tik 20ra, José Miguel Ascunceren lanak ikusteko aukera izanen dugu, eta, bestetik, maiatzaren 3tik 27ra, Maite Cantoren margolanak jarriko dira ikusgai, "Colectivo H2O. El agua como elemento vital de todo y de todos" izenburupean; urari buruzko margolanak dira. Bi erakusketak Artikako María de Maeztu Kultur Etxean egonen dira zabalik, 16:00etatik 21:00etara, astelehentik ostiralera; larunbat eta jaiegunean, berriz, Kultur Etxean ikuskizunak dauden orduetan.

### >IKUSKIZUNAK

#### Dantza eta haur antzerkia, Kultur Etxean

Haurrentzako bi antzezlan emanen dira datozen asteotan, María de Maeztu Kultur Etxean. Lehen lana martxoaren 27an iritsiko da, igandean, arratsaldeko seietatik aurrera, Glu Glu Producciones taldeak "Anbotoko Mari eta orrazi galdua" antzeztuko baitu, hau da, euskal mitologiaren inguruko bidaia. Haurrentzako bigarren antzezlana apirilaren 17an izanen da, Gayarre Antzokia Udal Fundazioak "Misión imposible. El ratoncito Pérez contra la bruja Caries" emanen baitu, arratsaldeko seietatik goiti. Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuko "Eszena" programaren baitan, Kultur Etxean dantza garaikideko "Where is my mind" ikuskizuna emanen du Fuera del Eje taldeak. Emanaldia apirilaren 9an izanen da, 20:00etan.

## >euskara

### >KORRIKA

#### Dena prest Korrika 2011ri ongiatorria emateko

Korrika 2011 apirilaren 7an Trebiñutik abiatu eta apirilaren 17an bukatuko da Donostian. Gure udalerrira apirilaren 8an iritsiko da, ostiralean, 18:30ean. Berriobeititik, gero, Aitzoainera joanen da, eta, handik, Berriozarrera.



Korrikaren etorrera dela eta, Udalak hainbat bilera egin ditu ekitaldiak antolatzeko. Programazioa datozen egunotan zehaztuko bada ere, zerbait aurreratu daiteke; esate baterako, Artikako haur eskolan Korrika txikia egingen da; halaber, antzerki tailerreko ikasleek antzeppen txiki bat egingen dute Kultur Etxean; txokolate-jana Berriogoitin lasterketa iritsi baino ordubete lehenago, eta Aitzoainera otamen bat. Horrez gain, Berriozarko Udalarekin batera, erakusketak antolatuko da Berriobeitiko parte hatu duen Korriken inguruko argazkiak erakusteko. Inork Korrikaren antolaketan lagundu nahi badu, bilera bat izanen da martxoaren 31n, 19:30ean, Berriobeitiko kafetegiaren inguruan.

### >SOLASALDIA

#### Nola lagundu gure seme-alabei, euskaraz ez badakigu

Iñaki Eizmendi pedagogoa solasaldi bat emanen du apirilaren 5, Artikako María de Maeztu Kultur Etxean. Gaia hauxe izanen da: euskararen erabilera familian. Izenburua, zehazki, hauxe izanen da: "Ez dakigu euskaraz... nola lagundu diegu gure seme-alabei?" Eizmendik zalantzak argituko dizkie gurasoei, hau da, azalduko die zer-nolako jarrera erakutsi behar duten seme-alabekin euskararen erabilerrari buruz. Solasaldia 18:00etan hasiko da.

### >EUSKAREN EGUNA

#### III Euskararen Eguna, Larragetan

Euskararen Egunaren hirugarren edizioa ekainaren 11n egingen da, Larragetan. Egitarau zehatza laster jakinaraziko badute ere, badakigu, besteak beste, herri bazkaria izanen dela, bai eta gure herrien arteko herri kirol saioak ere. Aurten lantzen ari diren ekimenen artean, gure Zendeako eta inguruko euskarazko hitzak bilduko dituen hiztegi txiki bat dago.



>UDALEKUAK

**Euskarazko udalekuetan izena emateko epea, martxoaren 28tik 30era bitarte zabalik**

Beste behin ere, Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuek udalekuak antolatatu dituzte uztaile-rako eta abuzturako. Lehen Hezkuntzako 1. eta 6. mailan eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailan ari diren ikasle euskaldunentzako udalekuak dira, eta helburu dute euskararen erabilera haurren artean sustatzea, eta Nafarroako eremu soziolinguistikoko guztietako haurren arteko harremanak egitea. Martxoaren 28tik 30era eman behar da izena, Euskara Zerbitzuan bertan (948 30 31 29). Interesa duten guztiek eta argibideak eskuratu nahi dituztenek Euskara Zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan, edo bestela, euskara@berrioplano.es posta elektronikoa.

**HONA HEMEN ESKAINTZEN DIREN UDALEKUAK**

**PIRATEN UDALEKUA (LEHEN HEZKUNTZAKO 1., 2. ETA 3. MAILA)**

**Non:** Pasai Donibane  
**Txanda kopurua:** 6 txanda (uztaila: 2tik 8ra, 8tik 14ra, 14tik 20ra, 20tik 26ra; uztailearen 26tik abuztuaren 1era; abuztua: 1etik 17ra)  
**Prezioa:** 162 euro  
**Jarduerak:** jolas tailerrak, ludoteka pirata, txangoa txalupaz, hondartza eta igerilekua.

**XAMARIKO UDALEKUA (LEHEN HEZKUNTZAKO 4. ETA 5. MAILA)**

**Non:** Larraul  
**Txanda kopurua:** 4 txanda (uztaila: 2tik 8ra, 14tik 20ra, 20tik 26ra; uztailearen 26tik abuztuaren 1era uztaile)  
**Prezioa:** 162 euro  
**Jarduerak:** jolasak, herri kirolak, mendi txangoak, hondartza, piragua Txingudiko badian.

**BERTSO UDALEKUA (LEHEN HEZKUNTZAKO 4. ETA 5. MAILA)**

**Non:** Orrio  
**Txanda kopurua:** txanda bat, abuztuaren 1etik 7ra  
**Prezioa:** 186 euro  
**Jarduerak:** jolasak, bertso tailerra, mendi irteerak, hondartza, bertso afaria, disko bat grabatzea

**UDALEKU SORGINDUA (LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILA, ETA DBHKO 1. ETA 2. MAILA)**

**Non:** Zugarramurdi, Graxiana aterpetxea  
**Txanda kopurua:** 3 txanda (uztaila: 14tik 20ra, 20tik 26ra eta uztailearen 26tik abuztuaren 1era)  
**Prezioa:** 168 euro  
**Jarduerak:** belar tailerra, ibilaldia Saran barna, leizeak ikustea, Senpereko lakua

>IGERIKETA

**Bi igeriketa ikastaro, euskaraz**

3 eta 6 urte arteko 16 haur ari dira haurrentzako igeriketa ikastaroetan, Berriobeitiko kirol instalazioetan. Hala 3 eta 5 urte arteko taldea nola 4 eta 6 urte artekoa astelehen arratsaldean ari dira; lehenak, 17:30etik 18:00etara, eta, besteak, 18:30etik 19:00etara.

Beste alde batetik, beste 3 ikastaro antolatatu dira hurrengo hiruhilekorako (apirilak 13-ekainak 23). Izen-ematea, apirilaren 1etik 8ra.



>BILERAK GURASOekin

**Hizkuntzen tratamendua familian**

Hamar bat lagunek parte hartu zuten joan den urtarrilaren 17an Artikako haur eskolan egindako bileran, euskararen inguruko tratamenduari buruzko zalantzak argitzeko. Urtarrilaren 10ean, bestalde, Berriogoitin beste bilera bat egin zen, eta dozana erdi lagun bildu ziren, gai bera jorratzeko. Parte-hartzaileek egindako galderei erantzuteaz gain, Euskara Zerbitzuak liburuxka bat ere banatu zien gurasoei: "Hiz-

kuntzak, familia, eta eskola: Bakoitzari berea". Liburuxkan aholkuak biltzen dira, seme-alabei nola lagundu jakiteko, gurasoek euskaraz hitz egiten ez badakite; zer egin seme-alaben eskolako lanak ulertzen ez direnean, edo zer neurri hartu haurrak irakaskuntza-arazoak baditu. Liburuxka, era berean, hiru urteko seme-alabak dituzten guraso guztiei bidaliko zaie.

Apirilean, bestalde, bilera bat egingen da Berriozarko Mendialdea ikastetxe publikoko gurasoekin hizkuntza familian nola tratatu jorratzeko.

>MENDI IRTEERAK  
**Zendealdia 2011**

Zendealdia, aurtengoan, apirilaren 16an egingen da: hots, urtero Zendeako kontzeju guztietan barrena egiten den ibilbidea. Ibilbideak, luze-laburrean, 16 kilometro inguru ditu, eta urterokoa izanen da, aldaketa txiki batzuk gorabehera. Ez da beharrezkoa ibilbidea alderik alde egitea, bakoitzak nahi duen tartea egin baitezake.

Ibilbidea 9:30ean abiatuko da Artikako María de Maeztu Kultur Etxetik eta Berriobeitiko Udaletxean bukatuko da. Gero, Berriobeitiko jatetxean herri bazkari bat egingen da.

**TXANGOAZKABARA**

Joan den otsailaren 19an, 35 lagun inguru bildu ziren Ezkaba mendira igotzeko, "Paseoak gure Zendearen barrena" programaren baitan. Oraingo honetan, irteeraren helburuetako bat izan zen San Kristobal baselizaren hondarrak aurkitzea. Hartara, parte-hartzaileetako batek, Joseba Gilek, inguru hartako mapa bat eraman zuen, XVII. mendekoa, ermita non zegoen bilatzeko. Aztarna batzuk aurkituta ere, ikusi zuten ez zirela ermitakoak. Baina XVII. mendeko zeramika arrasto batzuk aurkitu zituzten. Txangoa gailurreko gotorlekuan bukatu zen, "Botilen kanposantua" esaten zaion zelaigunean, zehazki; izan ere, hantxe ehorzten zituzten hildako guztien ondoan botila bana jartzen zen, hildakoari buruzko datuekin.



>KIROLAREN EGUNA

**Kirola, Berriobeitiko protagonista, maiatzaren 29an**

Berriobeitiko urteroko kirol hitzordu nagusia maiatzaren 29an egingen da. Makina bat kirol saio egingen da; horien artean, Berriobeitiko Udala XI. Herri Lasterketa. Eguna goizeko hamarretan hasiko da aurrebenjaminen probekin. Geroxeago, gainerako kategoria guztien txanda iritsiko da: kadeteak, jubenilak, juniorrak, promesak, seniorrak eta beteranoak. Lasterketa absolutuko irabazleek, bai gizonezkoetan nola emakumezkoetan, 180 euro jasoko dituzte; bigarrenak, bai gizonezkoetan nola emakumezkoetan, 120 euro, eta hirugarren tokian gelditzen direnek, 90 euro.

Izenak irteera lerroan emanen dira (Udaletxean), eta epea proba bakoitza hasi baino ordu erdi lehenago itxiko da. Behin lasterketa bukatuta, Berriobeitiko haurren judo taldeak erakustaldi bat egingen du eguerdiko hamabietan. Gainera, eta rokodromoko atea zabaltzeko ekitaldien ordez, horma mugikor bat jarriko da, aire zabaleko eskaladan aritzeko, nahi duen edonork eskaladan aritzeko aukera izan dezan, hori bai, bi monitoren lagundurik. Horma hori lau orduz egonen da, 10:00etatik 14:00etara.